



## **ETXEBIZITZETARAKO GAS SARRERAK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA.**

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

**Onartuta:** Udalbatzak 1989/10/30ean

**Argitaratuta:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 1989/12/20an

## **ETXEBIZITZETARAKO GAS SARRERAK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA.**

Gutxieneko arauak emanez, etxebizitzetarako gas naturalaren sarrera instalaketak araeztatzeko beharra ikusten du Udalak eta, dagozkion eskuduntzen ariketan, ondorengo araudia finkatzen du:

### 1. Artikulua

Etxebizitzetarako gas naturalaren sarrera instalaketak gauzatzeko lan lizentziak eskuratzeko, udal inprimakinan egindako eskaria aurkeztu beharko da; honi erantsiko zaizkio abonatuaren zerrenda, gas naturala zein erabileratako den, urteko kontsumoaren kalkulua termiatan, fatxadako argazkia eta hodeien taxuera azaltzen den plano.

### 2. Artikulua.

Erregelaketa arasa paretaren barnean kokaturik egon beharko da, behebarruaren bazter batean ahal balitz, behebarru bakoitzeko arasa bat instalatzea beharrezkoa dela.

### 3. Artikulua.

Hodiak estalkian zehar eta teilategalaren inguruan eramatea debekaturik dago.

### 4. Artikulua.

Hodibideak lerro paralelotan kokatu beharko dira, bertikal zein horizontalki, eta fatxadaren koloreaz margotuko dira, horiek mimetizatu asmoz; hodian taxuera ahalik eta ezkutapenik zehatzena lortuko duena izango da, Udal Zerbitzu Teknikoen jarraipideetara joaz.

### 5. Artikulua.

Bidezkoa deritzon guztietan, instalaketa monohodi eraz instalaketa exijitu ahal izango du.

### 6. Artikulua.

Eraikuntza berriko proiektuetan gas naturalaren instalaketa sartzea beharrezkoa izango da, gainontzeko instalaketei ematen zaien tratamendu berarekin.

### 7. Artikulua.

Arkupe publikoetan, sabaiaren koloreaz pintaturiko metalezko bandejaren gainean eramango dira hodiak.

### **AZKEN XEDAPENA.**

Ordenantza hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratze datatik hurrengo 15 eguneko epean sartuko da indarrean.